

Toki entitateentzako dirulaguntza deialdiak.

Merkataritza eta turismoa

Irailaren 11n, larunbatarekin, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko honako hiru laguntza lerro argitaratu ziren EAOn Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan, **merkataritza-sektorearen** lehiakortasuna sustatzeko xedez: ([prentsa-oharra ikusi](#))

[Deialdien laburpena – merkataritza arloa](#)

1. **“Eremu turistikoetan merkataritza-jarduera indartzeko” laguntza lerroa**. 100 milioi euro 3 urtetan (2021-22-23). Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko urriaren 14ra arte**.

[Deialdia ikusi](#) [Eskuorria](#) [Laguntzen Atarirako sarbidea](#)

2. **“Landa eremuetan merkataritza-jarduera sustatzeko” laguntza lerroa**. 15 milioi euro 3 urtetan (2021-22-23). Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko urriaren 6ra arte**.

[Deialdia ikusi](#) [Eskuorria](#) [Laguntzen Atarirako sarbidea](#)

3. **“Merkatu Jasangarrien Programa” laguntza lerroa**. 200 milioi euro 3 urtetan (2021-22-23). Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko irailaren 30era arte**.

[Deialdia ikusi](#) [Eskuorria](#) [Laguntzen Atarirako sarbidea](#)

Prozesua erraztearren, dokumentazio guztia FEMParen web-orrian argitaratu da. Bertan, besteak beste, maiz egindako galderak jasotzen dituen dokumentua dago [Merkataritza arloko Europako Funtsak atalean](#).

Era berean, **FEMP** Merkataritzako Estatuko Idazkaritzaren **entitate laguntzailea** izanen da **eremu turistikoetara eta landa eremuei zuzendutako lehenengo bi laguntza lerroak kudeatzeko**. Zalantzak argitzeko posta elektronikoa bat jarri dute: fondoscomercio@femp.es

Merkataritzako Estatuko Idazkaritzak zuzenean kudeatuko du “Merkatu Jasangarrietara” zuzendutako laguntza lerroa. Harremanetarako posta: sgfomon.sccc@mincotur.es

Oro har, laguntza deialdi bakoitzaren estekan aurki daiteke eskaerak izapidetzeko, maiz egindako galderak argitzeko, inprimakiak deskargatzeko, aurkeztutako proiektuak ikusteko eta abarretarako beharrezkoa den informazioa. Horretaz gain, [Industria, Merkataritza eta Turismo Laguntzen Atarian](#) ere informazio bera eskura daiteke.